



*Prensa oharra*

## **EROSKI-K 23.700 LITRO ESNE BAINO GEHIAGO EMAN DIZKIO ELIKAGAIEN BIZKAIKO BANKUARI**

- **"Ez alferrik galdu" elkartasun programa dela medio egin du EROSKIak dohaintza hori, bere dendetan jateko modukoa dagoen janaririk alferrik galdu beharrea gizarte erantzukizunez jokatzeko duten erakundeei emateko**
- **Kooperatibak 51.000 litro esne baino gehiago eman dizkie, EROSKI markako esne osoa, gaingabetua eta erdigaingabetua eman ere, elikagaien Bizkaiko, Arabako eta Burgosko bankuei**

**Elorrio, 2017ko abuztuaren 29a.-** [EROSKI](#)k 23.760 litro esne eman berri dizkio [elikagaien Bizkaiko bankuari](#), "Ez alferrik galdu" elkartasun programaren harira. Programa horren bidez, ez da janaririk alferrik galtzen kooperatibaren dendetan, baizik eta gizarte erantzukizunez aritzen diren erakundeei ematen zaie kontsumitzeko moduan dagoena.

Guztira, kooperatibak 51.120 litro esne eman dizkie elikagaien Bizkaiko, Arabako eta Burgosko bankuei, EROSKI markako esne osoa, erdigaingabetua eta gaingabetua eman ere.

*"Hogei urte honetan elkarrekin aritu dira lanean EROSKI eta Elikagaien Bankua. Guk konpromiso sendoa izan dugu beti kanpaina denboran gure dendetan elikagaiak biltzeko orduan. "Ez alferrik galdu" programarekin, gainera, jateko moduan diren elikagaiak ematen ditugu dohaintzan, betiere gure freskotasan estandarrak beterik janaria apaletatik kentzen dugunean. Horrela, ez da janaririk alferrik galtzen, eta lagundu egiten diogu zailtasun ekonomikoetan eta bazterketa arriskuan denari",* esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Elikagaien Bizkaiko bankuko presidenteak, berriz, Miguel Angel Fernandinok, garrantzia eman dio kooperatibaren eta Elikagaien Bankuaren lankidetzari. *"Eroskik ematen duen esne honi esker, Bizkaiko familia askori lagundu diogu gizarte erakundeen bitartez",* esan du Fernandinok.

EROSKIren "Ez alferrik galdu" programa erreferentziazko bihurtu da janaria hondatzen ez uzteko jardunbide arduratsuen arloan, eta zenbait aitortzen jaso ditu alde horretatik. 2014an, Nekazaritzaren, Elikagaien eta Ingurumenaren Espainiako Ministerioak bereizgarri bat eman zion, "Jokabide egoki berritzaileen erronkak" izeneko, janaria eta iraunkortasuna direla eta. Horretaz gainera, egin duen lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, Urrezko Galburuaren sariarekin; dagoen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeetarako.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)